

**2016KO AURREKONTUAREN  
MEMORIA ETA EZAUGARRI  
NAGUSIAK**



## 2016KO AURREKONTUEN MEMORIA

Hau une egokia da 2016ko aurrekontua aurkezteko, legealdi honetako lehena. Aurrekontua lan tresna bat da, finantza administraziokoa, oinarria dena urtean egin behar diren proiektuak eta lerro estrategikoak planifikatzeko. Abiatuta dauzkagun baliabideetatik eta jakinda horiek zertarako diren, aurrekontuan zehazten da zer proiektu, zerbitzu eta jarduera egin nahi dugun urte osoan.

2016ko aurrekontua da abiapuntua legealdi honetako plan estrategikoa exekutatzeko. Oinarrizko aurrekontua da, zeinetan egongo diren 4 urtean egin nahi diren proiektuetarako kontu sailak.

Aurrekontu honek hasiera emango dio asmoz betetako legealdi honi, proiektuz eta haize freskoaz josia, Arrasaten aldaketa positibo bat eragiteko.

Hala ere, ezin dugu ahaztu arau batzuk bete behar ditugula, hala nola Aurrekontua Egonkortzeko eta Finantzari Eusteko Legea, zuzenean eta modu iraunkorrean eragiten diguna.

Nahiz eta ez duen ematen beharko dugula mailegurik legealdi honetan, indarrean dagoen lege esparruak, oso zorrotza eta murriztailea, behartzen gaitu lehenestera zor publikoa beste edozein gasturen aurrean, eta horrek galarazi egiten du udaleko diru kutzak kudeatu ahal izatea era librean. Egoera honek Madrilen erabakien mende uzten gaitu, eta maniobra marjina txikia dugu; guztiz beharrezkoa zaigu ezartzea ekonomia-finantza plan bat eta inbertsio plan bat, 4 urtera begira.

Edonola ere, arazo hau ez da izango oztopoa gure proiektuak aurrera eramateko, betiere bilatuz oreka bat diru sarreen eta gastuen artean..

Hala ere, egoera ekonomiko honetan gaude: pertsonal gastuak (% 32,61), eta gehituta udal zerbitzuen funtzionamendutik datozenak (% 30,97) gastuaren % 60tik gora, Udalaren aurrekontu osoaren aldean. Egoera honek uzten digu oso marjina txikia inbertsioak egiteko eta tamaina handiko proiektuak exekutatzeko. Diru sarrera gutxiago dugu krisialdiaren ondorioz, batez ere diru sarrerak galtzeagatik, zergetatik datozenak; eta pertsonal gastuek, egokitu beharrean, jarraitu dute igotzen, ehuneko handiagoa aurrekontu osoaren aldean.

Horregatik, lehen urte honetan, oinarri batzuk ezarriko dira joera hori aztertu eta zuzentzeko. Bilatuko dugu eraginkorragoak izatea, efizienteagoak eta balioaniztunagoak administrazio egituran bertan, diru gehiago izateko inbertsioetan datozen urteotan, legealdian.

Tokiko gobernu berria iritsita, antolaketa eredu aldatu egin da, batzorde gutxiago dugu, 13tik 8 batzordera pasatu da. Murrizketa horrekin jarraitu gura izan dugu udal askok ezarritako joerarekin, non batzorde osoagoek eta transbertsalagoek erantzuten duten modu orokorrago eta berritzaileago batean, sinergiak sortuz. Hainbat sail batu dugunez, lortu dugu ikuspegi berri bat, askoz ere zabalagoa eta osoagoa, sail larregi edukitzetik ihesi doana. Horrela, gura dugu zerbitzu osoagoa eta globalagoa eman herritarrei.

Horregatik, legealdiko lehen aurrekontu honen ñabardura nagusia da aztertzea eta plangintza egitea. Horretarako, alde aurretik zenbait lan egingo dira, horien artean, Udalaren antolaketa aztertzea edo herritarrei eman beharreko zerbitzuen gutun agiria osatzea.



Jarraituko dugu ezinbesteko helburuekin, herritarren ongizatearekin loturik daudenak: eusten diegu prestazio sozialei, eta zerbitzuei ere bai.

Gure lehentasunean pertsonak sartzen dira, eta lan egingo dugu bizikidetzaren egonkorra izan dadin eta gizarte kohesioa bermatu dadin. Ildo horretan, eutsi diegu laguntza eta programa sozialei, eta konpromiso irmoari horiek handitzeko, hala behar izanez gero.

Gainera, kontu sail berri bat dugu, interbentzio programa bat aplikatzeko pertsona nagusien etxebizitzetan, eta beste kontu sail bat ere bai, aztertuko duena gizarte aterpetxe bat Arrasaten ezartzeko beharra dagoen eta bideragarria den.

Halaber, gure konpromisoa enpleguarekin, lehentasuna duena, agertzen da kontu sail batzuetan, langabeak kontratatuzko eta beka programak ezartzeko, eta saiatuko gara, 2016ko urteari begira, adosten Lanbiderekin, eskumenen inguruan gatazkarik sortu ez dadin. Jarraituko dugu eragiten lankidetzaren publiko-pribatuen herriko hainbat agenterekin, hala nola Mondragón Unibertsitate edo SAIOLAN.

Gure apustua da irmoa agente aktiboa izateko enplegua sustatzeari eta jardura ekonomikoa sortzeari buruz, eta ahalegin gehigarriak egingo ditugu kongresuak eta jardunaldiak erakartzeko, izan ere, herriaren onerako izango dira.

Hedabideetan azpimarratu dute era positiboan Udala Finantzatzeko Foru Funtsak, Udalaren baliabide nagusia, aurrekusten duela 0,46 milioi euro gehitzea (% 3,5 gehiagoa 2015eko aurrelikidazioaren aldean) 2016 urterako, eta hori da diru sarrerak izatea guztira 13.775.077 euro.

A priori, bide honetatik diru sarrera gehiago lortzea beti da positiboa, baina ikusita udal gehienok zer esperientzia bizi izan dugun, murrizketa nabarmena izan baikenuen Udala Finantzatzeko Foru Funtsetik krisialdian, arreta handiz eta zuhur jokatu dugu. Zer horrek, denboran hain urrun ez dagoena, behartzen gaitu aztertzerik udal aurrekontua kontu handiz, ahalegintzera diru sarreraren iturriak identifikatzen eta gastua arrazionalizatzen. Hobetu behar dugu barne eraginkortasuna eta efizientzia, eduki dauzkagun zerbitzuen katalogoa aztertu eta baloratzeko, baina lan hori nahitaez egin beharko dugu herritarren iritzia kontuan hartuta.

Udal Lege bat izan gabe 35 urtetik gora eman eta gero, ematen du Eusko Legebiltzarra akordio batera iritsiko dela Legebiltzarren legealdia bukatu baino lehen. Legeak argia eman beharko du udalen eskumenei buruz eta argitu beharko du zeintzuk izango diren jardun larriak, jakiteko udalek zer zerbitzu eman behar duten.

Halaber, eta Iturbide Egoitzari dagokionez, hurretik jarraituko dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen plangintza, erabili duen egutegiari dagokionez, egoitza Kabia foru erakundearen sartu ahal izan dadin.

Inbertsioei dagokienez, haien garrantzia 2 puntu (ehuneko) handitu da, 2015eko aurrekontuaren aldean.

Legealdi honetan auzoetara hurbilduko gara. Arrasate nabarmen izan da osatuta dagoelako hainbat auzorekin; horietako asko eta asko erdialdetik urrun, betiereko ahaztuak, aldarri historikoa. Horregatik, legealdirako pentsatutako jardun asko eta asko, batez ere inbertsioetan, lekua izango dute



auzoetan.

Halaber, gure apustua irmoa da kulturaren alde. Arrasate herria da oso dinamikoa, musika eta kultura tradizio garrantzitsua duena. Tradizio horren adierazgarria da Arrasate Musikal musika eskola, zeina behin-behineko egoera kaxkarrean dagoen duela 8 urtetik gora, eta hainbat kultura talde eta elkarte Erlojuaren eraikin prekarioan kokatuta.

Gure apustua da estrategikoa. Legealdi honetan tamaina handieneko proiektua izango da Aprendizices eraikina birgaitzea, musika eskolaren behin betiko egoitza izango dena, eta Erlojuaren eraikina osorik birgaitzea, erantzun egoki bat emateko kultura jarduera osoari, une honetan egoera eskasean.

Elkarren ondoan dauden eraikin bi horien birgaitze lanekin sortu gura dugu eremu erabakigarri eta estrategiko bat kultura esparruan, ez bakarrik udalerrian bertan eskualdean ere bai.

Euskarari dagokion lekua eman gura diogu. Ahalegin handia egiten ari gara Arrasaten euskara ikasi eta erabili dadin sustatzen, eta baliabideak eta esfortzuak jartzen ditugu gure herritarrek ikasi dezaten, herritar berriak integratu daitezen gure gizartearen zutabeetako baten bidez: gure hizkuntza. Helburu honekin, eta udal euskaltegiak lokal egokia izan dezan, lekuz aldatzea aztertuko da Erlojuaren eraikinaren proiektuaren esparruan.

Beste inbertsio erabakigarri eta estrategiko bat izango da Emakume txokoari leku berri bat ematea. Gainera, proiektuaren barruan, pentsatu dugu sartzea gela bat haurtxoei titia emateko.

Inbertsioen kapituluan, gainera, hainbat jardun egongo da aparkalekuen arazoari erantzuteko, eta plaza berriak sortuko dira herriko hainbat lekutan. Hala, jarraituko dugu Takolo-Goiru proiektuaren G fasearekin, zeinak aparkaleku berriak aurreikusten dituen San Andresen, eta kontu sail bat jarri dugu aparkalekuak sortzeko Jose Luis Iñarra kalean.

Mugikortasunari dagokionez, egin gura dugu mugikortasun plan berri bat, kontuan hartuta aurrekoa 2005ekoa baita. Kontu sail berri baten bidez egingo da bidegorriaren proiektua, zeinak lotuko dituen Etxaluze eta Musakola, bidegorri bat egiteko udalerrian, eta hasiko da proiektu bat idazten Makatzena auzorako irisgarritasuna hobetzeko.

Halaber, jarraituko dugu San Josepe kalea (1B azpifasea) berriro urbanizatzeko proiektuarekin, garrantzitsuena ikuspegi ekonomikotik, azpifase horren zenbatekoa izanik 600.000 euro.

Haurren aisialdiari dagokionez, udal gobernu honen lerro estrategikoetako bat, jarri dugu kontu sail bat Gorostizako haur parkea estaltzeko, albo batera utzi barik kontu sail gehigarriak sortzea haur parkeak eta haien estalkiak hobetzeko direnak, eta legealdi honetako helburua da Arrasateko auzo gehienetan parke estaliren bat egotea, haurrentzat aisialdi lekuak egoteko eguraldi txarra dugunean.

Gure herriak leku erakargarri asko du, historia eta merkataritza eremukoak, bultzatu gura ditugunak jarduerak eta aberastasuna sortzen laguntzeko, herritar guztion onerako izango dena. Merkataritzak eta turismoak aurrekontu propio bat izango dute, plan zuzentzaile bat egiteko merkataritzari buruz Arrasaten, eskualdean ere eginkizun hori indartzeko. Hortaz, ekitaldi honetan, egingo dira bai merkataritzaren plan estrategikoa bai turismoaren udal plana.



Kirolak, gure gizartearen giltzarria, garrantzia berreskuratzen du legealdi honetan, inbertsio handi batzuen bidez. Kontu sail berri bat sortzeaz gain Kirolaren plan estrategikoa egiteko Kirolaren Aholku Batzorde sortu berrian, zeinak hainbat agente sozial duen kirol munduari atxikirik, azterketa handiak egin behar dira, argia izateko eremu honetako inbertsioen etorkizunari buruz. Batetik, aztertuko dugu zer kostu duen Musakolako kiroldegiaren balizko birmoldatze batek, eta, bestetik, sortu dugu kontu sail bat Iturripeko aldagelak berritzeko proiektua idazteko.

Ezberdinen arteko akordioa lortzeko, parte hartzearen kultura hartu dugu. Lanean ar igara Innobasque-rekin, Berrikuntzaren Euskal Agentzia, gutxienezko akordio baten oinarriak jartzeko herritarren parte hartzeari buruz, Arrasateko bizilagunen parte hartzea normalizatzen eta ofizialtzen laguntzeko. Abian jarri ditugu kirolaren mahaia, Gorostizako jolas parkeko estalkiaren prozesu parte hartzailea edo Arrasate pasealekuko plazan zuhaitza aukeratzea.

XXI. mendean politika ezin dugu planteatu herritarrek parte hartu barik, kultura politikako kontzeptu bat ordezkari demokrazia baterantz doana, non herritarren parte hartzea den tresna erabakigarria. Ekitaldian ezarri gura ditugu oinarriko lerro batzuk herritarren parte hartzearen kontzeptuari buruz, oso kontzeptu zabala baita.

Laburpen moduan, nabarmentzen ditugu 2016ko aurrekontuen ezaugarri nagusiak:

1. **Legealdi hasierako aurrekontua da, non gobernu aldaketa** bat izan baitugu, sentsibilitate ezberdinekoa, behintzat aurreko Udalbatzaren erabaki eta lehentasun batzuei buruz. Horrek esan gura du oraingo zerbitzu batzuk, bai eta oraingok hasi barik dauden proiektuei buruz, berriro aztertuko direla, geroago, ikusita prozesu horretan zer konklusio atera diren, erabakiak hartzeko. Azken batean, **2016ko aurrekontu ekitaldian, garrantzi handia dute udal jardueraren plangintza eta antolamendu lanek, agintaldiko hurrengo urteei begira**, eta horren ondorioz gehitzen dira kontu sail batzuk, proiektua eta lanak edo azterketak egiteko direnak, administrazio antolamendua hobetze aldera eta, bereziki, herritarrei eman beharreko zerbitzuak hobetze aldera.
2. Helburua da **handitzea maniobra marjina inbertsioak finantzatzeko**, uste baita hainbat gorabeheragatik (kontrako egoera ekonomikoa, zalantzarik gabe, horietako bat da) ia ez dago gaitasunik tamaina jakin bateko inbertsioei aurre egiteko. Egoera horrek ekarri du **atzerapen nabarmena guztiz beharrezko azpiegitura eta ekipamendu jakin batzuk abian jartzeko**; horien exekuzioa, oraingo gobernu taldearen iritziz, ezin da gehiago atzeratu denboran. Logikaz, **inbertsio jardueraren garrantzia handitzeko asmoak**, ez bada guztiz aldatzen oraingo udalaren koordinada ekonomikoa, nekez gertatuko dena, **ezinbestez dakar gastu korrontea zorrotz kontrolatu behar izatea**, berraztertu egin beharko dena arrazionalizazio eta eraginkortasun ikuspegi batetik, oro har eztabaidatzeko zer lehentasun izan behar den udal jardueran.
3. **Jarduteko lehentasunezko lerroen artean dago enplegua sortzeko diren jardunak egiteko apustua**, eta hainbat ekimen egitea koordinazio egoki batez beste agente batzuekin (administrazioak, gizarte agenteak eta abar), oraingo enplegu adierazleetan hobetze bat izateko, jardun koordinatu horren bidez laguntzeko oinarriak ondo jartzen geroko ikuspegiak hobetzeko



eremu horretan, bai eta **borondatea ere kolektibo ahulenei bermatzeko oinarrizko udal zerbitzuak ematea eta horiez baliatzea** (gastu soziala dena), **gaitasun ekonomikoa ez izatea izan ez dadin inoiz arrazoi bat horiek ez lortzeko.**

4. **Udal aurrekontua egokitzen du antolaketa politiko berrira, Udaleko osoko bilkuran onartua 2015/7/13an**, zeina pasatzen den 13 batzordetik 8ra (eta erakunde autonomo bitik batera, azken hori Aukea desegin izanaren ondorioz, 2014an aurreko udalbatzak erabakita).

5. **Asmoa da zerga presioa izoztea eta ez igotzea**, ulertzen baita oraingo egoera ekonomian ez dela egokia planteatzea udal zerbitzuen finantzaketaren eta legealdiko inbertsioen ardura herritarrek hartzea beregain; bai, ordea, planteatzen da **legealdiko erronka moduan kanpoko finantzaketa mailak hobetzea** (beste administrazio batzuen diru laguntzak), eta asmoa da zorpetzera jotzea lege-arauek onartzen badute (aurrekontu egonkortasunari, zorrari eta gastu arauari buruzkoak), **egin beharreko inbertsioak finantzatzeko**, izan ere, Udalaren oraingo zor maila dago ia minimo historikoetan, eta maileguen kostua itzuli da askoz ere parametro zentzuzkoagoetara, alderatuta azken urteetakoekin.

6. Nahiz eta zuzenean loturarik ez izan, behintzat une honetan, 2016ko aurrekontu ekitaldiaren ezaugarri garrantzitsu bat izango da, **2015eko aurrekontuen likidazioaren testuinguruan** (gutxi gorabehera zehaztuko dena 2016ko martxoan), espero dela **soberakin edo superabit bat izatea, 3-3,5 milioi euro inguruko zenbatekoa. Dicho excedente**, en parte motivado por la buena ejecución de los ingresos del 2015, pero, en otra parte, precisamente como consecuencia del proceso de reflexión y revisión de algunos de los proyectos que se pretendían poner en marcha en el anterior mandato, **será objeto de análisis y debate específico cara a su posible utilización, vía modificación de créditos, a lo largo del año 2016.**



Aipatu eta gero 2016ko aurrekontuaren alderdi kualitatibo esanguratsuenak, zenbatekoak agertuko ditugu aurtengo ekitaldirako aurreikusiak, bai Udalarena bai Iturbide Egoitza erakunde autonomoarena ere; hona hemen horiek:

<b>Udalaren aurrekontua</b>	<b>32.078.733,50 euro</b>
<b>Iturbide Egoitzaren aurrekontua</b>	<b>3.433.766,48 euro</b>

**Aurrekontu Orokor** finkatua edo bi aurrekontuak batuta, barne transferentziak kenduta (defizita estaltzeko ekarpenak, eta Udalaren fakturazioak, erakunde autonomoari ur eta zabor zerbitzuak egiteagatik) kopuru hauxe dugu, **35.443.060,16 €**.

2016ko zenbatekoak alderatuz gero 2015erako onartutako aurrekontuaren kopuruekin, koadro hau dugu:

<b>ERAKUNDEA</b>	<b>AURREK. 2016</b>	<b>AURREK. 2015</b>	<b>ALDAERA</b>	<b>2016/2015</b>
Udala	32.078,54	31.525,79	+552,75	+1,75%
Iturbide	3.433,77	3.537,04	-103,27	-2,92%
Aurrek. Orok.	35.443,06	34.945,60	+497,46	+1,42%

(kopuruak mila eurotan)

Kopuruak lehenengoz aztertu, eta egiaztatuko dugu lehen memoriaren hasieran adierazitakoa, hau da, aurrekontuak **onartzeko hasierako fase honetan** eta herritarrei eman beharreko zerbitzuak berraztertu eta arrazionalizatzeko prozesuan zer ondorio aterako den ikusi arte, bai eta horretarako behar den administrazio antolaketarena ere, 2016an ia ez da sartzen aldaketa nabarmenik oraingo zerbitzu eskaintzari buruz. Halaber, jarraitzen dugu gastuei eta diru sarrerei eusteko politikarekin (zergarik ez igotzea eta zorpetzea kontrolatzea), azken urteotan aplikatua. Hortaz, ematen badu ere 2015/2016 epealdian zerbait hobetu egin direla zer ekonomikoak, hobetze horrek ez du oraindik aurrekontuetan modu esanguratsuan eraginik izan.

Iturbideren aurrekontuan, berriz, gutxitu egin da tamaina batean, % 3, (zerbitzu batzuk emateko) iaz lortutako hobekuntzengatik (kostu ekonomiak) kontratazio prozesuen bidez, klinika laguntzaileena eta lehengaien produktu eginak eta erdieginak hornitzearena eta sukaldariena, hain zuzen ere. Kostuak gutxitze horrekin batera etorri da Udalak defizit txikiagoa ordaindu behar izatea.



Orain eta hemen, aztertuko ditugu, xehetasun maila handiago batez, Udalaren aurrekontuaren gastuen eta diru sarreraren kontu sail nagusiak, eta ITURBIDE erakunde autonomoaren aurrekontuak memorian datoz azterturik erakundeak berak idatzita, agiri honetan bertan atal berezi gisa agertzen dena.

Hasiko gara Udalaren aurrekontua aztertzen gastuen ataletik.

## GASTUEN AURREKONTUA 2016

2016ko ekitaldirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 32.078.733,50 euro, eta iazkoaren aldean % 1,75eko igoera du.

Aurreko ekitaldiari buruz 2016ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa aztertu ondoren, koadro hau daukagu:

### KONPARAZIO KOADROA, 2016KO AURREK. – 2015EKO HASIER. AURREK.

Kapitulua	AURRE K. 2016	% S/T	AURRE K. 2015	% S/T	Aldea	16/15
I Pertsonal gastuak	10.468,6	32,63%	10.336,8	32,79%	123,8	1,28%
II Ondasunak eta Zerbitzuak	10.017,7	31,23%	9.973	31,63%	44,7	-0,45%
III Interesak	27,1	0,08%	38,3	0,12%	-11,2	-29,24%
IV Transfer. arruntak	4.862,5	15,16%	4.882,4	15,49%	-19,9	-0,41%
VI Inbertsioak	4.981,7	15,53%	4.283,8	13,59%	697,9	16,29%
VII Kapital Transf.	741,3	2,31%	783,9	2,49%	-42,6	-5,43%
VIII Finan. Akt. Aldak.	265	0,83%	265	0,84%	0	0
IX Maileguen amortizazioa	714,8	2,23%	962,1	3,05%	-247,3	-25,7%
<b>GUZTIRA</b>	<b>32.078,7</b>	<b>100%</b>	<b>31.525,3</b>	<b>100%</b>	<b>553,4</b>	<b>1,76%</b>

(Kopuruak mila eurotan adieraziak)

Koadro hau aztertu eta ikusiko dugu, portzentajeetan, Udalaren gastu globalari buruz, ia ez duela aldaketarik. Aipatu daiteke inbertsioetan igoera txiki bat izan dela (+2,2 puntu ehunekotan), konpentsatzen dena gutxitze batekin gainerako kapituluetan apur bat murriztuta, nagusiki finantza zorrean (interesa+amortizazioak, gutxitzen dena 0,9 puntu ehunekoetan) eta ondasunen eta zerbitzu arrunten erosketan (gutxitzen da -0,4 puntu ehunekoetan).

Azken batean, 2016an iazkoaren oso antzeko gastu egitura bat daukagu.

Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen Udalak 2016an:






- **32,63 €** erabili dira **personal gastuei** aurre egiteko, eta hor sartzen dira Udalean egitekoak betetzeko liberaturik dauden udalkideen ordainketak.
  
- **31,23 €** behar dugu gastu arruntei erantzuteko, udal **zerbitzuen funtzionamendutik sortzen direnak**.
  
- **2,31 €** dira **banketxeekin** hartutako konpromisoak betetzeko (**maileguen interesak eta amortizazioak**).
  
- **15,16 €** dira **transferentzia arruntak edo diru laguntzak** finantzatzeko; horietatik **7,7 euro** dira udalen arteko zerbitzuen kuotak eta Iturbide Egoitzaren defizita (berez udal zerbitzuak dira).
  
- **15,53 €** dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.
  
- **2,31 €** dira **beste administrazio edo erakunde batzuek** egindako **inbertsioak** diruz lagundu edo elkarrekin finantzatzeko.
  
- **0,83 €** erabiltzen da finantza aktiboak erosteko, hala nola **langileei aurrerakin itzulgarriak emateko** (diru-sarreraren kopuru berdina) **eta Garaia S.Coop.ren kapitalari ekarpena egiteko**.


Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daitezke 2016ko gastuen aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa, 2015eko aurrekontuaren aldean, eta 2016ko gastuaren portzentaje banaketa ere bai, sailkapen ekonomikoaren arabera edo, beste era batera esanda, gastuaren izaerari jarraiki.



### 2015 ETA 2016KO AUREKONTUAREN GASTUAK ALDERATZEA KAPITULUZ-KAPITULU



### GASTUA BANATZEA KAPITULUZ-KAPITULU - 2016EKO AUREKONTUA





Orain aipatuko ditugu gastuen aldaera nagusiak eta 2016ko aurrekontuaren berritasun aipagarrienak, 2015eko ekitaldiko kopuruaren aldean, sailkapen ekonomikoaren edo gastuaren izaeraren arabera.

## **LEHEN KAPITULUA – LANGILEEN GASTUAK - 10.468.589,51 euro**

% 1,28ko igoera du, 2015eko aurrekontuaren kopuruaren aldean.

Gastuen kapitulu honetan sailez sail banaka kalkulatu dira kontuan hartuta 48/2015 Legeak xedatutakoa, urriaren 29koa, Estaturako aurrekontu orokorreari buruz, zeinak ezartzen baitu % 1ean sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainketak gehitzeko muga, 2015eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainketei buruz. Legez baimendutako gehikuntza prebizio horretan oinarrituta, kuantifikatu dira kapituluaren kontu sailen aurrekontu kopuruak, eta batuz gero 2016an ordainketa txertatze edo aldaketa berriak, 2015ean gertatuak, kontzeptu batzuen intzidentzia ekonomikoaren berezko gehikuntzari, hala nola antzinatasuna (hirurtekoak) eta 2016ra pasatzen badira 2015ean onartutako kontratazioen eragina, enplegua sustatzeko programen babesean eginak, kapituluaren igoera globala geratzen da apur bat % 1 hori baino gorago.

Printzipioz, ez da sortuko lanpostu berririk udal plantilan, ulertzen baita egokiago dela hasieran aztertzea Udalaren administrazio antolamendua eta aztertzea zer-nola lerrokatzen den onartutako antolamendu politikoarekin; horrela, lan horiek egiteko testuinguruan lortu daitezke erreferentzia edo datu batzuk, baloratzeko udal sailetan dauden beharrianak nahiz soberakin potentzialak, herritarri eman beharreko zerbitzuen definizio batetik abiatuta.

Alegia, gorabehera berezi batzuk gertatzen ez badira, berehala erantzutea eskatu dezaketenak, planteatzen da atzeratzea langileei buruz hartu beharreko erabakiak, abian jarritako azterketen konklusioen berri jakin arte.

## **BIGARREN KAPITULUA - ONDASUN ETA ZERBITZU ARRUNTAK EROSTEA – 10.017.670,00 euro**

Gehitzen da % 0,45eko aurrekontuaren aldean. Horrek esan gura du 2016ko ekitaldian, salbuespen txiki batzuk izan ezik, mantentzen direla hasieran onartutako 2015eko aurrekontuen kontusailak eta dotazioak.

Oro har, 2016an eutsi egiten zaie iazko kontu sailei ia ezer aldatu barik, ulertzen baita, kasu honetan, hartu behar diren erabakiak eman beharreko zerbitzuei buruz, haien ezaugarriak eta baliabideak, zehaztu beharko direla antolamendua aztertuta, lehentasunak baloratuta interes publikoaren ikuspegi batetik, eta eskura ditugun baliabideen optimizazioa eginda. Edozelan ere, aldaketa batzuk aipatu daitezke iazkoaren aldean, taldetan jarrita aldaketa horren arabera. Hala, hauek ditugu:

### **A- Gastuak igotzea**

– Kontu sailak sortzea aurretiazko lan edo azterketak finantzatzeko, hala nola prozesu parte hartzailea Zerrajeran erlojuaren eraikinaren beharrak aztertzeko (20.000 €), aterpetxe



sozial baten azterketa (10.000 €), Udalaren antolamendu azterketa (20.000 €), kalitateko jardueren kontu saila igotzea (35.000 €), besteak beste, herritarrei zein zerbitzu eman jakiteko, zerbitzu gutun bat egingo baita. Azken batean, azterketa teknikoen gisa igoera bat izango genuke aurrekontu prebisioan, 85 mila euro gehiago, 2015ekoaren aldean.

- Kontu sail berria, 51.000 eurokoa, aurre egiteko interbentzio programa bati pertsona nagusien etxeetan, zeintzuk bete behar dituzten baldintza jakin batzuk, aldeztu aurretik ezarriak hartarako (Gizarte Ongizateko batzordeak egitekoak), hobetu behar dutenak segurtasuna, bizigarritasuna, mekanismoak jartzea koordinatzeko urgentzia kasuetan zerbitzu eta erakunde espezializatuekin, eta abar.

-Kontu sail berria, finantzatzeko Merkataritza, Turismo, Teknologia Berriak eta Ekonomia Sustapeneko batzordearen jarduerak, 55.000 euroko zenbateko batekin (lehendik dagoenaz aparte, baserriko produktuen azokarako, hileroko egiten dena zapatu batean Seber Altuben).

- Kontu sail berria (2015ean onartutako aurrekontuaren aldean) izotz pista bat alokatzeko eta monitore batzuk kontratatuzko (25.500 €), gabon garaian egitekoa.

- Fondo izaera duten (dagokion Batzorde Informatzaileak bere ihardueren izaera zehaztu arte) kontusail berri batzuk sortzea, Prozesu Partehartzaileei buruz, Memoriaren gaiari buruz eta Genero indarkeriaren aurkako Arrasateko Plana idaztea/gaurkotzeari buruzko lanak finantzatzeko, guztira 55.000 euro izanik.

### **Gastua murriztea**

- Gutxitzea Kreditu Globalaren kontu saila (-20.000 €), hasieran jasota ez dauden ustekabe edo beharrezkoak estaltzeko, egonez gero halakorik.

- Etxeko laguntza zerbitzu azpikontratatuak (-45.000 €), aurrekontu aurreikuspena egokitzeko azken urteotan zerbitzuan izandako gastuari edo eskariari, hori guztia kontuan izanda gobernu taldearen konpromisoa dagoela handitzeko, baldin eta eskariek edo beharrezkoak hala behartzen badute.

- Zerbitzu azpikontratatuak Ikuskatzeaz eta Zerga bilketaz aholkatzeko (-160.000 €), kontratua bukatu izanaren ondorioz eta asmoa dagoelako udal eskumeneko zerga ikuskatzea gure baliabideez kudeatzeko.

Adierazi behar da, kapitulu honetako aurrekonturako premisa gisa, irizpide bat erabili dela borondatezko gastua ez gehitzeko eta oraingo zerbitzu eskaintzari eusteko.

Azkenik, esan behar da zerbitzu azpikontratatuak, bide garbiketa, lorategiak, hiri garraioa eta eraikinen garbiketa zerbitzuena, gutxi gorabehera direla 3,3 milioi euro (kapituluaren % 33), batzordeen jarduerak finantzatzeko kontu sailak (jaiak sartuta) 1,17 milioi euro (kapituluaren % 11,7), gizarte ongizateko zerbitzuak (etxeko laguntza, tutoretzapeko etxeak, jubilatuen etxeak, aholkularitza eta tratamendua babesik gabeko egoeretan, eta abar) 0,9 milioi euro (kapituluaren % 9) eta edateko ura hornitzea Urkulutik eta energia elektrikoa argiteria publikorako eta udal



zerbitzuetarako 1,4 milioi euro (kapituluaren % 14), hau da, kontzeptu horiek hartzen dute gastuen kapitulu honen % 67,8 ia, eta kontzeptu horietan jarri beharko ditugu nagusiki ahaleginak eraginkortasuna hobetzeko eta kostuak murrizteko, lortu nahi badugu maniobra marjina handitu inbertsioak finantzatzeko.

## HIRUGARREN KAPITULUA - MAILEGUEN INTERESAK - 27.133,76 euro

Gutxitu egin da % 29,24, 2015eko aurrekontuaren aldean.


Legealdian udal gastua banatzean, kapitulu hau behin eta berriro murrizten ari gara, eta horren arrazoia da bikoitza:

- Batetik, 2011-2015 aldian **interes tipoa egonkortu izana, historikoki baxuak diren neurrietan**, izan ere, 2011ko bukaera aldera %1,4 izan da hiruhileko euriborra, eta 2015eko azaroaren bukaera aldera -%0,11 (negatiboa!). Izan ere, 2015ean, interes tipoen erreferentzia hori, apiriletik aurrera mugitu da kopuru negatiboetan; abenduaren 1ean -%0,116ra iritsi da, eta horrek erakusten du unerik baxuenean gaudela, erreferentzia horren bizi aldi osoa hartuta (1991tik 1999 arte erreferentzia zen MIBOR, eta 2000tik aurrera EURIBOR erreferentzia).

- Finantza **zorraren zenbatekoa murriztu izana**, maileguen **urteko amortizazioen** ondorioz, zorpetze berririk gabe ez 2015ean ez, ziurrenik (aurrekontuan badoa ere koadratzeko), 2016an, eta zorraren zenbatekoa izango da 2015/12/31n 2,36 milioi euro, 1990-2015 aldiko minimo historikoa.

2016 aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, erabili dugu erreferentzia zuhur samar bat, zehazki 0,25% interes tipo bat, eta gero horri gehitu behar diogu kontratu bakoitzari aplikatu dakioken diferentziala. Indarrean dauden mailegu guztiak (kitatu ez direnak) sinatuta daude tipo aldakorrean, hiruhileko euribor erreferentziarekin. Kontuan hartzen badugu azken erreferentzia ezaguna, 2015/12/1ean, % -0,116 dela, aurrekontu aurreikuspenak % 0,36 inguruko koltxoia du interes tipoen.

Honekin batera doan grafikoan ikusi dezakegu zer eboluzio izan duen hiruhileko EURIBOR erreferentziak (2000. urtera arte erreferentzia da MIBOR) 1991-2015eko azaroaren aldian, zeinetan egiaztatuko dugun maila baxuetan egonkortu dela 2009tik aurrera, are gehiago gutxitua azken 3 urteotan.



(\*) 1991-1999 aldiko datuak hiruhileko MIBOR erreferentziari dagozkie.

Bestalde, 2015eko urtean egiaztatu da nabarmen hobetu direla 2014an hasitako hobekuntza bankuen eta kutxen finantza baldintzak, mailegu berriak emateari buruz. Interes aldakorreko modalitateko maileguetarako, 2011-2013 aldiari aplikatu zituzte "euribor + 4 puntu" diferentzialak eta orain "euribor + 0,75 puntu". Tipo finkoaren modalitatean eskaintzen zuten % 5eko interesa eta orain eskaintzen ari dira % 2,5 inguruko tipoak. Ematen du, hortaz, eskaintako baldintza ekonomikoak mugitu ahal izango direla parametroa onargarriagoetan eta arrazoizkoagoetan.

Baina ematen du aldatuko ez dena esparrua izango dela aldatuko, zorpetzea lortzeko erregulatzen duena; 2016an, behintzat, oro har sektore publikoaren zorpetze handi/deskontrolatuaren ondorioz, jarraitzen du izaten aurreko urteetako antzekoa. Hau da, kreditua lortzeko oztopoetako bat hobetzen da, zehazki prezioari dagokiona, baina hor dago beste muga bat ere, lege esparruarena, zeinak irizpide eta indarreko lege oso zorrotzak dituen aurrekontu egonkortasunaren printzipioak betetzei dagokionez, eta hor dago derrigortasuna, izan ere, bete ezean aurrekontu ekitaldi batean, ekonomia-finantza plan bat onartu behar da, zeinak bermatuko duen urtebetean egonkortasun egoera batera itzuliko dela.

Erregulazio horrek baldintzatzen du tamainako inbertsioen plan bat egitea, urte anitzekoa bera, zeina sostengatuko den bereziki eta nabarmen zorpetze sisteman, finantzabide moduan. Beraz, udaleko gobernu taldearen lehen aurrekontu honetan udal gobernuak uste du arrazoizkoagoa dela 2016an indarra jartzea proiektuak egiten eta eztabaidatzen, eta horien denbora eta finantza plangintza egiten, ekitaldi honetan aurrekontu egonkortasunari buruzko



legezko irizpideak beteta, eta hurrengo aurrekontuak izan daitezela, batez ere 2017koa eta 2018koa (legea aldatzen bada hori egiteko) asmo handiko inbertsio plana finantzatzen dutenak. Ulertzen da Arrasateko Udalaren ekonomia eta finantza osasuna dela nahiko ona (termino absolutuetan eta erlatiboetan, zorpetze maila baxuena dugu 1990-2015 aldian), planteamendu hori defendatzeko bestekoa.

## **LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 4.862.549,33 euro.**

Gutxitzen da % 0,41, 2015eko aurrekontu kopuruaren aldean.

Kapitulu honen alderdi aipagarriak dira:

- **Zerbitzu mankomunatuaren kuota, 2.431.482,52 euro direnak, gutxitu dira % 0,6** 2015ean hasieran onartutako aurrekontuko diru-kopuruaren aldean. Edozelan ere, kopuru horiek behin-behinekoak dira, kuota horien zatirik inportanteena (% 82) HHS zerbitzutik dator (hondakinak bildu, kudeatu eta tratatzea) eta zerbitzu horretan, eskualdeko beste udalerririk batzuetan duela gutxi hartu dituzten erabakietan oinarrituta, aldaketa batzuk sartu beharko dira, intzidentzia nabarmena izango dutenak bai kostu osoetan bai irizpide aldaketa hipotetiko batean, horiek zelan banatu udalen artean. Azken batean, hona ekarri dira kopuru batzuk, mankomunitatearen aurrekontuaren zirriborroan hasiera batean sartuak, baina kontziente izanik horiek, aurten batez ere, aldakortasun maila handia dutela.

- **Defizita nabarmen gutxitu da Iturbide Egoitza erakunde autonomoan (-47,5 mila euro, ▼% 49)**, batez ere hobetu delako hainbat zerbitzuren kostua (klinika laguntzaileak, elikagaiak hornitzeko zerbitzua eta sukalde zerbitzua), zeina hobetu daitekeen diru sarreren ikuspegitik, baldin eta azkenean lortzen bada finantzaketa osagarri bat Foru Aldunditik. Bestalde, agertu behar da oraindik jarraitzen dugula Gipuzkoako egoitzen planekin “KABIA” foru erakundearen sartzeko; foru aldunditik duela gutxi adierazi digutenez, litekeena da zerbait atzeratzea epeetan, hasieran aurreikusitakoaren aldean (Arrasaterako planteatuko data izan zen 2016a).

- **Nabarmen gutxitu da, esanenezake ia desagertu dela hezkuntzaren zuzeneko diru laguntzen kontu saila (-46,2 mila euro)**, kirol instalazioen lagapenak ikastetxei ez fakturatzearen ondorioz, baita ere, beste udal batzuekin batera **udalez gairik gabeko proiektuak finantzatzeko** kontu saila kentzearen ondorioz, uste baita kontu saila izan dugun bi urteetan diruz lagundu diren proiektuen helburua dela zalantzarik Arrasateko Udalaren interes publikoaren ikuspegitik.

- **Gehitu egin dira kopuruak diruz laguntzeko Arrasate Musikali (+35 mila euro)**, nahiz eta aurrekontuko kopurua den 2014 eta 2015 urteetan bukaerako benetako gastuaren antzekoa, eta, halaber, handitzen dira **Kultura-Hitzarmenaren diru laguntzetako kontu sailak (+15 mila euro)**, Arrasate Zientzia Elkartearekin sinatu behar den hitzarmena egin ahal izateko, baita ere, **Kirol Entitateentzako diru laguntzak kontu saila norgehiagokaren erregimenean (+30 mila euro)**, uste baita, birplanteamendu orokor bat egin behar denean kirolari buruz Udalak zer “rol” bete behar duen jakiteko (kirolaren plan estrategiko bat egin nahi dugu), kontu sailak murrizketak izan dituela aurreko ekitaldietan, izan ere, haren kopurua ez zen nahikoa kirol klubek eskatutako beharrei erantzuteko.



- **Jarraitzen** dugu **gizarte larrialdiko laguntzen programetarako** kopuruarekin, 300 mila euro, kopuru horrek erantzuten diolako azken urteotan izandako eskariari, baina, aurreko urteetan legez, udaleko gobernu taldearen borondate politikoa izango da diru gehigarriak jartzea, baldin eta onartutakoa ez bada nahikoa planteatzen diren beharrei erantzuteko. Halaber, jarraitzen dugu **enplegua sortzeko laguntzen programekin** (laguntza programak langabeak kontratatzeke, praktika bekak titulatu berrientzat eta laguntza programa enpresentzat lanpostu berriak sortzeko), diru kopuru globala izanik 236,5 mila euro, banatu daitekeena modu berean programa guztien artean, jasotako beharren eta eskarien arabera.

- Memoriaren hasieran adierazi bezala, orokortasunez, esandako salbuespenak salbuespen, jarraitzen dugu diru laguntza programekin, bai eta 2015eko aurrekontuan zeuden izaera nominatiboko diru-laguntzekin, iazkoaren antzeko diru kopuruarekin. Kasu guztietan, diru-laguntza programak finantzatzeko **aurrekontuan jarritako baliabideak dira 1,66 milioi euro**, kirol eremukoak barne hartuta.

- Halaber, osoko bilkuran 2015/7/13an onartu ziren **kopuruek eta kontzeptuek** ez dute izan aldaketarik, **udal talde politikoei ordaintzeko** (taldeka, zinegotzi kopuruko eta bilera joateagatik), baina diru kopuru globala berraztertu egin daiteke ekitaldi osoan, informazio batzordeetan egindako bileren maiztasunaren ondorioz kopurua ez bada nahikoa.

## **SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK– 4.981.659,80 euro**

Igo da % 16,3 (698 mila euro gehiago), 2015eko aurrekontuan kapitulu honi emandako kopuruari buruz.

Berriro esango dugu memoria hasieran esan duguna, gobernu aldaketa izan dugu eta, aurreko udalbatzaren aldean ikuspegi eta sentsibilitate desberdinak daudenez, horrek eragin egin die proiektu edo ekimen batzuei, izan ere, horietako batzuk ez dira egingo, baina beste proiektu batzuk, aurreko legealdian baztertuak edo zokoratuak, lehentasunezko izatera pasatu dira. Edonola ere, sartu barik beharrezko ez diren eztabaidetan, komenigarritzat jotzen da nabarmentzea inbertsioen lehen fasean plangintzari buruzkoa, ulertzen baita ezinbestekoa dela, garrantzi handiko erabaki berriak hartu baino lehen, egoki aztertzea, era ordenatuan, proiektuak egokiak diren edo ez, saiaturaz ebaluatzen eta integratzen zer beharri erantzun behar diogun, eta proiektuak egindakoan eta behar beste txekeatutakoan, orduan osatu beharra dago plangintzarekin, bai teknikoki (exekuzio epeak eta faseak) bai finantzeroki (ordaintzeko erritmoak eta diruzaintzako aurrekontuak), horrela gorabeherarik eta nahigabeko sorpresarik ez izateko hura exekutatzeari.

Bestalde, adierazita dago 2015eko aurrekontuaren likidaziotik espero dugula soberakin aipagarri bat (3-3,5 milioi euro), zeina erabili daiteken gastu berriak finantzatzeko. Horri buruz, eta soberakin edo erabilgarri zehatza behin betiko zehaztu beharra dagoenez (jakingo dugu gutxi gorabehera 2016ko martxoan), adierazten da, nahiz eta eztabaidatu daitekeen batzordeetan eta, azkenik, osoko bilkuran, gobernu taldearen borondatea dela kopuru hori jartzea batez ere inbertsio berriak finantzatzeko, uste baitugu urgentea dela hainbat azpiegitura eta ekipamendu egitea, geratu direnak egin gabe luzaroan, izan dugun krisialdi ekonomikoaren ondorioz.





Aurreko urteetan bezala, proposatu da zabalik uztea aurrekontuan, kreditu gehigarri kalifikazioarekin aurrekontuak exekutatzeko arauetan jasoa, milioi bat euroan handitzea sinatu beharreko kredituen edo maileguen zenbatekoa (azkenean beharrezkoak izanez gero), horrela erantzun ahal izateko azkar samar Udalari egokitu dakizkiokeen konpromiso batzuei, inbertsio proiektuetan, adibidez, haien diru laguntza kostu osoaren ehuneko berrogeia edo handiagoa denean; horrela, aurrez aurrekontu kopururik ez badago ere, ez da izango oztopo bat intereseko proiektuak aurrera eramateko, batez ere kanpo finantzaketako maila handia badute.

Azkenik, deskribatuko ditugu, xehetasun handiago batez, 2016an hasi behar ditugun jarduera nagusietako batzuk, zehazki hauek:

**Bide publikoen urbanizazioa** - 116.000 euro – Kontu sail hau da aurre egiteko modu generikoan egoera batzuei, hobetu, berritu edo aldatzekoak bide publikoan, haien egoera eta erabilera hobetzeko herritarrentzat. Bada 2016an egiteko aurreikuspen bat, irisgarritasuna hobetzeko Pablo Uranga kalean, Monterron parketik gertu, gaur egun horra iritsi baitaiteke bakarrik eskaileretatik edo arrapala batetik aldapan Jose Luis Iñarra pasealekura igotzeko eremutik. Kontu sailean soberakin egonez gero edo jardunak zailtasunak izanez gero, aurreikusi gabeak, pentsatutako 2. jarduna izango da berritzea espaloia Gipuzkoa etorbidean (1. fasea).

**Argiteria publikoaren inbertsioak** – 175.000 euro – Argiteria publikoaren ikuspegitik eta instalazioen telegestioaren gaia ia bukatzeko dagoenean, jarduera eremu bi ditugu egin gabe, lehentasunezkoak biak. Horietako bat izango litzateke oraingo ekipamenduak berritzea, modernoagoak eta eraginkorragoak izateko, eta bestea izango litzateke instalazio orokorrak (sareak) berritzea. Eremu biak dira garrantzitsuak, eta une honetan zentratuta gaude ekipamenduak berritzen (luminariak). Hori horrela da kasu askotan instalazioen beharrak sartuta daudelako urbanizazio proiektuen esparruan, hala nola Araba etorbidekoa, San Josepekoa, Garagartzakoa, Santa Marinakoa, ..., eta jarduera mota honetan obra zibilak dakarrelako kostu oso garrantzitsua, eta horrek esaten digu sareak berritu behar direla berriro urbanizatzeko jarduerekin batera. Arrasaten gutxi gorabehera 4.000 luminaria dugu; horietatik 1.000 urbanizazio proiektuek eragindako eremuetan. Helburua izango litzateke gainerako 3.000 luminariak ordeztzea eta “led” luminariak jartzea datozen 8-10 urteetan. Aurreko urteetan, batez ere 2014an eta 2015ean, 550 luminaria aldatu dira.

**Emekume Txokoaren egoitza berria** – 100.000 euro. Zerbitzu honen egoitza beste leku batean jarri nahi dugu. Kontu sailak urte anitzeko izaera izango luke, eta aurrekontuan jarri dugu beharrezkoa den kopuruaren zati bat, jakingo duguna Udaleko Zerbitzu Teknikoek bukatzen dutenean proiektu teknikoak obrak egiteko, hasiera batean aurreikusita udal jabetzako lokal batzuetan, Uarkape etxebizitza multzoan.

- **Gorostizan haur parkea estaltzea** – 220.000 euro – 2015ean kredituen lehen aldaketak udal aurrekontuan sartu zuen aurrekontu kopuru bat, haur parke bat estaltzeko. Udalerriko parkeen ezaugarriak eta inguruabarrak aztertuta, erabaki zen zerbait egiteko Gorostiza eremuan, parkean. Behin bukatuta prozesu parte hartzailea aukeratzeko estalkia, zeinak jasotzen dituen etorkizuneko oinarritzko ezaugarriak, eta adjudikatuta zeinek idatziko duen exekuzio proiektu teknikoa, 2016an obra egingo da.

- **Haur parkeak estaltzea** – 200.000 euro. Gorostizan parkea estali eta haren atzetik pentsatuta dago jarraitzea antzeko interbentzioak egiten herriko beste parke batzuetan, Arrasateko auzo guztietan edo gehienetan parke estaliren bat egiteko. Jardun bat edo gehiago



egingo dugu, aukeratutako parkearen ezaugarrien arabera eta interbentzioaren tamaina ekonomikoaren arabera, hau da, lehentasunak jarrita eta aurrekontua izanez gero.

- **San Josepe kalea berriro urbanizatzea (1B fasea) - 600.000 euro.** LKS Ingenieria S.Coop. enpresak, 2013an, proiektu bat aurkeztu zuen San Josepe auzoa berriro urbanizatzeko. Proiektu hura antolatuta dago 5 fasetan egiteko, eta horiek modu berezian egin daitezke; horietatik egina dago 1A azpifasea 2014-2015 aldian. Aurrekontuan jasotzen den kontsignazioa izango da 1B azpifasea egiteko, eta horrekin proiektuaren lehen fasea bukatuko da, garrantzitsuena ikuspegi ekonomiko batetik, proiektuaren % 35 inguru. Fase horretan nagusiki egingo da apur bat hobetu auzorako sarbidea, bai eta lan inportanteak ere oinarritzko azpiegiturei dagokienez, hala nola elektrizitatea eta gasa.

- **Aprendices eraikina – 60.000 euro.** Auzitegiek auzia erabakita, SPRIk eta Udalak izan dutena Zerrajera eremuko hirigintza kargen gainean, alde biak hasi dira harremana izatea akordioetara iristeko, eraikina erabili ahal izateko interes publikoko helburuekin. Pentsatzen dugu akordio horiek 2016an lortu daitezkeela; horregatik, gobernu taldeak esku artean ideia hau darabil, eraikin hori izatea Arrasate Musikalek erabiltzeko, uste baitu oraingo behin-behineko kokalekuak arazo larriak dituela (trafiko trinkoa eta sarbide arriskutsua haurrentzat, irisgarritasun eta intsonorizazio eskasa). Eraitza positiboa lortuz gero, ondare kudeaketaz eta horri buruz hartu daitezkeen formulez gain, beharrezkoa izango litzateke hasiera batean ekitea proiektua idazten eraikina birgaitu eta egokitzeko.

- **Takolo – Goiru proiektua - 300.000 euro.** GI-2620 errepidearen lehengo zeharkaldia berriro urbanizatzeko proiektua, Takolo eta Goiru artean, guztira 5.817.078,59 euroko aurrekontu batekin (BEZa barne), eginda dago hainbat fasetan egiteko, era berezian. Proiektuaren fase garrantzitsuena, F fasea, bukatuta dagoenez 2015ean, planteatu da jarraitzea proiektu hori exekutatzeko, uste baita faserik egokienak direla G fasea- Alfontso VIII kalea-Gipuzkoako Foruen plaza eta Cordoba y Oro plaza bidez eta H fasea- Alfontso VIII kalea- Cordoba y Oro plaza eta Azeri kalea bidez, lehentasun ordena horretan.

- **Bidegorria egokitzea – 547.000 euro.** 2015eko ekitaldian aurrekontuak kontu sail bat jasotzen zuen Etxaluze-Musakola bidegorria sortzeko proiektua idazten bukatzeko, bai eta obren lizitazio prozesua hasteko ere. Bidegorriaren obra honek erabat osatzen du bizikleta ardatza, planeamenduan jasota dagoenez bidegorrien udal sare nagusian baitago. Dena den, hasiera batean proiektuaren gainontzeko kostea 2016ko aurrekontuen bidez finantzatzea aurreikusita bazegoen ere, 2016 ekitaldirako, nola, kontratazio prozedurarekin hasi aurretik, proiektuari egokipen tekniko batzuk egin behar zaizkion, ulertu da egokiago dela urteanitzeko finantzazio planteatzea (2016+2017), horrela finantzazio obraren exekuzio erritmoarekin batera joango litzateke.

- **Lurpeko parkina – 100.000 euro.** Ematen du laster bukatuko dela Biteri eta Laubide aparkalekuak kudeatzeko oraingo enpresa emakidadunak bizi duen konkurtso prozesua. Gaur gaurkoz zalantza asko badago ere, litekeena da panorama argitzen joatea laster. Gorabehera hori dela-eta baliteke Udalak esku hartu behar izatea prozesuan, ez bakarrik ikuspuntu juridiko-administratibo batetik, agian ere formula operatiboak aplikatu beharko ditu kudeaketan, ahalegin ekonomiko eskatzen dutenak. Aurrekontuko kopurua da kopuru handitu bat, zehaztu beharko dena gauzak gertatu ahala.

- **Mugikortasun Plana – 30.000 euro.** Arrasateko udalerriko Mugikortasun Plana da 2005ekoa. Orduz geroztik nabarmen aldatu da udalerriko garraio azpiegituren gaitasuna eta



orientazioa, herritarrek eskatzen dutena garraio erari buruz, eta abar. Gorabehera hori kontuan hartuta, ulertzen da unea dela Mugikortasun Plan berri bat egiteko, gaia aztertu dadin ikuspegi global batetik (diagnostikoa oraingo egoerari buruz eta geroko kontuei buruz, bai epe laburrera bai epe ertainera eta luzera), gero esku hartzeko tokian tokiko eta zehatz-mehatz, aurrekontua izanez gero.

- **Merkataritzaren Plan Estrategikoa Arrasaterentzat.** Lan honen helburua izango litzateke agiri bat egitea erabiltzeko gida plan moduan merkataritzari buruz herrian, indartzeko eta, Debagoieneko eskualdean eginkizun berezia betetzen duenez, eredu erreferentziak garatzeko eskualde osoarentzat, kontuan hartuta gaur arte esan direnak, oraingo esperientziak eta agenteak hartuta, hori guztia plangintza estrategiko batekin.

Planaren bidez, helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Indartzea lankidetzeta formula publiko-pribatuak, egitura berria garatuz udalerriko hiri eremuetan, elkarri lagunduta, formula berritzaileak eta egonkorrak aztertuta, zeintzuk bermatuko duten ezarrita dauden negozioen iraunkortasuna.
- Optimizatzea merkataritza lokalen erabilera, udalerriko hiri eremuan.
- Aukera ematea sinergiak sortzeko udalerriko denden eta turismoaren artean.

- **Turismoaren udal plana.** Udalaren eskumena erabili nahi dugu turismoa bultzatu eta biziberritzeko.

Gaur arte Arrasateko Udalak ia ez du egin jarduerarik edo ekimenik ildo horretan. Oraingo gobernu taldeak eremu hori bultzatu nahi du eta, horretarako, beharrezko ikusten du aztertu eta plangintza egitea, zehazki, Arrasateko Turismo Plana egitea. Hona hemen zer alderdi landu/aztertuko diren Plana egiteko.

- Identifikatzea Arrasateko turismo baliabideak.
- Aztertzea ezaugarriak eta turismo baliabide horien garapen maila.
- Zehaztea zein lan egingo diren aipatu baliabideak balioan jartzeko.
- Aztertzea turismo informazioko lekuak nola antolatu: Alternatibak aztertu, abian jartzea turismo guneak, eta abar. .
- Zehaztea plana bat udalaren turismo baliabideak ezarri eta garatzeko.
- Zehaztea zer koordinazio eta antolaketa egingo diren eskualdeko udalerrietan eta /edo inguruko udalerrietan dauden baliabideak kontuan hartuta.
- Gauzatzea zer egutegi eta ordena izango den esku hartzeko.

- **Kirol sailaren inbertsioak.** 205.000 euro. Eskakerak planteatzean 2016ko aurrekontuak egiteko, kirol inbertsioei buruz kontuan hartu dira behar hauek eta aurrekontu zenbatetsi hauek:

- Sistema bat igerilekuetan kloro konbinatua desinfektatu eta kentzeko UV argi erradiazioarekin. Kontua da nabarmen gutxitzea kloroaren erabilera igerilekuetan, produktu kimikoen kontsumo txikiagoa egiteko. Halaber, aurreikusten dugu uraren kontsumoa murriztuko litzatekeela eta, horren ondorioz, gasarena (ur beroa da eta), gaur egun berritzen den uraren erdia berrituko litzateke eta (hau da, kontsumituko genuke 15 m<sup>3</sup> gutxiago egunean). Aurrekontua: 52.500 €



- Azterketa konparatibo bat Musakolako kiroldegia berritzeko kostuei buruz eta kirol instalazio eraiki berrien kostuei buruz, baita ere, proiektu biak zatitzeko aukerari buruz denboran exekuzio fase bat baino gehiagotan. Aurrekontua: 56.000 €

-Proiektua idaztea Iturripeko aldagelak berritzeko: Aurrekontua: 18.000 €

- Musakolako gimnastika gelan makinak berritzea. Aurrekontua: 10.000 €

-Jasogailua mantentze lanak egiteko. Gaur egun partekatzen da lantaldearen jasogailua. Betiere erabilgarri badago eta, hortaz, mugatze logiko batzuekin, askotariko beharrei erantzun behar baitie, eta horrek dakar atzeratzea kiroldegiko lanetan edo, baita ere, arazoak egoki amaitzeko. Aurrekontua: 30.000 €

-Musakolak kantxa egokitzea erabilera anitzeko jarduerako lizentzia proiektuari. Aurrekontua: 15.000 €

-Azterketa bat ikusteko zer aukera dagoen Musakolako kanpoaldeko igerileku handia berrantolatzeko. Aurrekontua: 5.000 €

-Musakolako eraikineko karbonatazio patologiarekin tratamendu lanak. Aurrekontua: 20.000 €

Beharren zerrenda honetatik abiatuta eta aurrekontuaren dotazioaren arabera, eskuartzeen ezaugarriak aztertu, ebaluatu eta ezarri ondoren informazio batzordean, jardunen egutegia egingo da. Esan behar da, hala ere, zerrenda horrek, une jakin batean, izan dezakeela aldaketaren bat beste inbertsio behar batzuen alde, ekitaldian sortu daitezkeenak, eta beti organo eskudunak ebaluatu eta gero (batzordean eztabaidatu eta diktamena egin eta gero).

**Kirolaren plan estrategikoa.** 30.000 euro. Plan estrategikoa idaztea lotuta dago zuzenean Kirolaren Aholku Batzordea sortu berri denarekin (Kirol Mahaia). Plan horren bidez Udalak erantzun nahi dio udalerriko kirol klubek urteetan planteatu izan duten aldarri bati, beraien ustez, Arrasatek ez baitu udalerriko kirol politika bat.

## **ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK – 741.300 euro**

Gutxitu da % 5,4, 2015eko aurrekontuaren aldean.

Ia aldaketarik izan gabe 2015eko aurrekontuaren kontu-sailei eta zenbatekoei buruz, jarraitu dugu iazko kontu sailekin eta kontzeptuekin (igogailuak jartzeko diru-laguntzak/irisgarritasuna hobetzea, ekarpena Zubillaga Hiltegia SLko inbertsioak egiteko, diru-laguntzak erabilera publikoko zortasuna duten urbanizazio pribatuen hobekuntzak kofinantzatzeko, ekarpenez gain Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren inbertsioak finantzatzeko).



Kapitulu honen barruan, eragin ekonomiko berezia dutelako, kontu sail hauek azpimarratu behar ditugu:

- Mankomunitatearen inbertsioak finantzatzeko den kontu-saila, 180.000 euroko diru izendapen batekin. Kopuru hori da, agian, aldaketa esanguratsu bakarra bi aurrekontuen artean (2015-2016), % 22 gutxitu baita iazko kopuruaren aldean. 2016an sartutako kopurua da udalaren estimazio hutsa, izan ere, ikusita zenbat inkognita dagoen, batez ere Bergaran eta Eskoriatzan hondakinak biltzeko sistemari buruz hartu beharreko erabakien inguruan (egindako kontsulten emaitzaren ondorioz eta herritarrek erakutsitako asmoa sistema aldatzeko), pentsatu dugu proposamenak, hasieran planteatu dena mankomunitatean egin duten aurrekontu zirriborroan, ez duela adierazten zer behar planteatuko diren azkenean. Hortaz, argi geratu behar da aurreikuspen hutsa dela, guztiz behin-behinekoa, geroagoa berraztertu daitekeena, zalantzak albora utzita eta mankomunitatean dagozkion erabakiak hartuta.
- Udalaren ekarpena, Gipuzkoako Ur Partzuergoa Eak, egin behar dituen inbertsioak finantzatzeko, 468.559,00 euroko zenbatekoa, % 1,4 igotzen dena 2015eko urtearen aldean.

## **ZORTZIGARREN KAPITULUA - FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA – 265.000 euro**

2015eko aurrekontuaren antzeko kopurua eta kontzepetuak.

Kapitulu honek garrantzi ekonomiko urria du, eta normalean jasotzen ditu bakarrik kredituak langileen aurrerakinak finantzatzeko, 90.000 euroko zenbatekoa; era berean, horiek beste kontu sail bat dute diru sarreretan, kopuru berdinarekin.

Hala ere, kapitulu honetan 2011tik aurrera sartu izan dugu Arrasateko Udalaren ekarpenari dagokion zatia, hau da, “Polo de Innovación Garaia, S.Coop.” entitatearen kapitalarena, zenbateko osoa dena 756.400 euro (159.950,74 euro 2010eko aurrekontuaren kontura eta gainerakoa 2011-2015 aldiko aurrekontuen kontura, urteko ekarpena 119.289,85 euro), 2010/10/7an osoko bilkuran hartutako akordioaren bidez urte anitzeko konpromisoaren terminoen arabera, hau da, udal ekarpena egingo du baldin eta baliabideak lortzen baditu eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zergaren ondorioz, Garaia eremu horretan egiten diren proiektu berrietatik sortuta.

Halaber, 2014an udaleko osoko bilkurak onartu zuen kapitala handitzea, Polo de Innovación Garaia, S.Coop.k bere garaian onartua 2010/4/15ean, Arrasateko Udalarentzat 331.527 €-ko ekarpen osagarria suposatu zuena, horrala erregularizatuta eta sintonian jarrita geratu dira udal akordioak eta entitate horren akordioak.

Era berean, 2013az geroztik hainbat aldaketa izan dugu, zerga izaerakoak, Garaia S.Coop.ari eragiten diotenak, eta eragina dute egin beharreko diru ekarpenaren kopuruetan eta erritmoetan. Batetik, Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioz erakunde horrek izan duen salbuespena kendu izana, udal zerga berriak sortzea ekarri duena 2015ean, 171,2 mila € inguruko zenbatekoa.



Hortaz, kopuru hori, borobildua gorantz (175 mila euro), estimazioaren arabera, konpentsatuko da egin gabe dauden ordainketekin, 2016an kapitala handitzeko direnak, eta hori guztia kontuan izanda zenbatekoak aldatu egin daitezkeela bukaeran, eta konpentsazio erritmoak ere bai, Garaia s.Coop. entitateak 2015ean jarri zuen erreklamazio baten ondorioz (une honetan erabakitzeke dago) ordainagiri horien aurka, zeina oinarritzen den, errekurso jartzailearen iritziz, bai esleitutako katastro balioen desdoitze batean merkatuko benetako balioen aldean, bai lursailen hirigintza garapeneko oraingo egoeran (plan partziala aldatzea).

Bestalde, azken 3 urteotan ia diru sarrerarik sortu ez duenez Eraikuntzen gaineko zergak Garaia eremuan, pentsatu dugu bidezkoagoa dela diru sarrerak uztea euro batekin, handitu daitekeena gero, gastuen kontu sailean zuzenean, kapitalari ekarpena egiteko.

## **BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 714.831,10 euro**

Gutxitu da % 25,7, 2015eko aurrekontuko kopuruei buruz.

Kapitulu honetako finantza kargak kalkulatzeko, udalak estimatu du 2016ko aurrekontuetan aurreikusitako maileguak (edo azkenean kontratatzen dena) ez duela behar izango ordainketarik, ez interesik eta ez amortizaziorik, hurrengo ekitaldian, uste baitu ez duela erabiliko ezelako kopururik. Estimazio hori egiteko arrazoia da 2016an sinatu beharreko mailegu berrien aurrekontu aurreikuspenaren izaera “teorikoa”, ekitaldiko gastuen eta diru sarreren koadratze formala egiteko hondar baliabide moduan erabilia, izan ere, benetan 2015eko itxieraren aurreikuspenak diosku lortu ahal izango dela nahiko baliabide, zorpetze horren beharrik ez izateko. Kasu guztietan, ez dugu espero 2016an diruzaintza tentsiorik egotea, ez finantza desfaserik, mailegu berrien kontratazio beharrezkoa egiteko.

2015eko aurrekontuaren exekuzioak, zorpetzearen ikuspegitik, erakutsi digu ez dugula behar izan mailegu berririk (nahiz eta “teorian” aurreikusita egon kreditu berri bat, 1,07 milioi eurokoa) eta, bestalde, banketxeekin kontratatutako kredituengatik dugun zorraren zenbatekoa gutxitu egin da 1,06 milioi, gutxi gorabehera, amortizazioen eraginez.

Beraz, aurreikuspen horiek ontzat emanda 2016ko gastuen eta diru sarrerei buruz (hau da, diru sarreretan, ez kontratatzea mailegu berririk eta, gastuetan, ekitaldiko amortizazioak betez gero), zorpetzearen azken kopurua izango litzateke 2016/12/31n 1,65 milioi.

Aurreko aurrekontuetan bezala, memorian aztertu behar dugu 1991-2016 aldian maileguengatik zorraren eboluzioa, eta erabiliko ditugu 2016ko aurrekontuaren erreferentziak edo estimazioak (lehenago aipatu ditugun lan hipotesien arabera, hau da, mailegurik ez 2016an). Halaber, zor hori lotuko dugu aurrekontuetako likidazioetatik lortutako diru-sarrera arruntekin (2015ekoak izango lirateke, adierazi bezala, itxiera aurrerapenaren datuen arabera eta 2016koak izango lirateke aurrekontu aurreikuspenen arabera), erreferentzia hori ulerturik Udalaren gaitasun ekonomiko arruntaren neurri gisa.



**MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA – 1991/2016 ALDIAN (MILA EUROTAN)**

URTEA	HASIERAKO ZOR BIZIA	MAILEGU BERRIAK	AMORTIZ. EKITALDIA	BUKAERAKO ZORRA	AURREKO URT.Z
1991	4.398,2	1.388,9	218,2	5.569	26,6%
1992	5.569	2.013,4	295,7	7.286,7	30,8%
1993	7.286,7	4.771,4	2.372,2	9.685,3	32,9%
1994	9.685,3	2.434	378	11.741,4	21,2%
1995	11.741,4	1.911,2	605,8	13.052,2	11,2%
1996	13.052,2	2.704,6	3.755,1	12.001,6	- 8,0%
1997	12.001,6	---	976	11.025,6	- 8,1%
1998	11.025,6	---	1.033,1	9.992,4	- 9,4%
1999	9.992,4	1.434	1.140,1	8.852,3	- 11,4%
2000	8.852,3	-	1.123,9	7.728,4	- 12,7%
2001	7.728,4	1.803	1.156,3	8.375,1	+8,4%
2002	8.375,1	1.800	1.240,1	8.935,3	+ 6,7%
2003	8.935,3	---	1.429,2	7.506,1	- 16%
2004	7.506,1	---	1.682,5	5.823,6	- 22,4%
2005	5.821,6	5.904,9	1.723,8	10.004,7	+ 71,8%
2006	10.004,7	1,200	1.328	9.874,7	- 1,3 %
2007	9.874,7	---	1.227,2	8.647,5	- 12,5%
2008	8.647,5	---	1.060,2	7.587,2	- 12,3 %
2009 (1)	7.587,2	3.077,5	1.081,9	9.582,8	+26,3%
2010	9.582,8	-	1.403,5	8.179,3	-14,6%
2011	8.179,3	3.111,2 (2)	2.146,0	9.144,5	11,4%
2012	9.144,5	---	2.438,2	6.706,3	-27 %
2013	6.706,3	--	2.312,6	4.393,7	-34,5%
2014	4.393,7	--	1.065	3.328,7	-24,2%
2015 (3)	3.328,7	--	966,1	2.362,6	-29,0%
2016 (4)	2.362,6	--	714,8	1.647,8	-30,3%

(1) – Mailegu berriztat jotzen dugu Foru Aldundiaren aurrerakina, 2009ko UFFFren saldo negatiboarengatik.

(2) – Eusko Jaurlaritzaren interesik gabeko aurrerakina barne (2010eko murrizketa eta 2011ko berria)



- (3) – 2015eko aurrekontuko itxiera estimazioen arabera  
(4) - 2016ko aurrekontuko datuen arabera, mailegu berririk gabe

Maileguen zorra lotzen badugu Udalaren diru sarrera arrunt edo korronteeekin, eta 1990-2016 aldiko eboluzioarekin, koadro hau daukagu:

**DIRU SARRERA ARRUNTETAN MAILEGUEN ZORRAREN ZERRENDA – 1990-2016 ALDIAN**

EKITALDIA	ZORRA 12/31n	OPER. ARRUNT. LIKID. ESKUB.	%G./ SARRERA ARRUNTAK
1990	4.398,2	9.767,6	45%
1991	5.569	10.862,7	51,3 %
1992	7.286,7	12.550,9	58,1 %
1993	9.685,3	12.337	78,5 %
1994	11.741,4	13.078	89,8 %
1995	13.052,2	13.477,7	96,8 %
1996	12.001,6	14.944,8	80,3 %
1997	11.025,6	15.971,9	69 %
1998	9.992,4	16.194,9	61,7 %
1999	8.852,3	17.340,4	51 %
2000	7.728,4	19.833,4	39 %
2001	8.375,1	18.784,2	44,6%
2002	8.935,3	19.167,7	45,7%
2003	7.506,1	21.070,8	35,6%
2004	5.821,6	24.461,2	23,8%
2005	10.004,7	24.549,4(*)	40,8%
2006	9.874,7	27.650,8	35,7%
2007	8.647,5	28.870,84	30%
2008	7.587,2	28.469,48	26,6%
2009 (UFFF 2009 zor moduan)	9.582,8	26.072,0	36,7%
2010	8.179,3	27.608,6	29,6%
2011	9.144,5	25.631,8	35,7%
2012	6.706,3	26.665,2	25,2%
2013	4.393,7	27.335,6	16,1%
2014	3.328,7	29.347,6	11,3%
2015 (itxiera estim. arabera)	2.362,6	31.200	7,5%
2016 (2016ko aurrek.ri buruz)	1.647,8	30.638,4	5,4%

(\*) 2005etik aurrera hirigintza aprobetxamenduak, diruz kobratzekoak, eta Hirigintza zamak ez dira sarrera arruntetat kontsideratzen


Koadro hau eta aurrekoa aztertuz gero, ikusiko dugu 1991 – 2016ko bukaerako aldiari maileguen zorra, termino absolutuetan, % 62 gutxitu dela, diru sarrera arruntei dagokienez ekitaldi bakoitzaren bukaeran, ikusiko dugu 2016ren bukaeran gaudela aztertutako aldiaren unerik onenean, izan ere, zor horiek ia ez dira iristen Udalaren urteko diru-sarrera arruntentzen % 5,4ra. Hau da, labur esanda, adierazi daiteke zorraren zenbatekoa nabarmen gutxitu dela balio absolutuetan eta gutxitze hori askoz handiagoa dela neurtzen badugu Udalaren gaitasun ekonomikoari buruz.






Nolanahi ere, aurreko aurrekontuetan aipatu bezala, konklusio hori, egia bada ere, kontu handiz erabili behar dugu, izan ere, oraingo egoeran beste arrisku batzuk daude, aurreko urtealdietan ez zeudenak, hala nola, besteak beste, oraingo zerbitzuei eusteko diru sarrerak hazteko zailtasun egoera batean, berankortasun arazoak udal zergak kobratzeko, zalantzak ekonomiaren eboluzioari buruz, beste administrazio batzuek diru-laguntza programak murriztu izana eta Udalak maniobra marjina urria duela inbertsioak eta aurreikusi gabeak finantzatzeko (gastu arrunten eta lehendik hartutako konpromiso finkoen ondorioz). Faktore guzti hauen bilakaerak, zorpetze maila txikia izan arren, baldintzatu dezake nabarmen Udalak etorkizunean eskaini beharreko zerbitzuen garapena eta bere finantzatzeko gaitasuna.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zein eboluzio izan duten maileguren zorraren aldagaiek 1990/2016 aldian eta diru-sarrera arruntek 1990-2016 aldian (2016. urteko datuak, aurrekontuaren kopuruaren arabera)





1990/2016 MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA ETA OHIKO DIRU-SARREREKIN DUEN LOTURA  
MILA EUROETAN





## DIRU SARREREN AURREKONTUA - 2016

Aurrekontua da 32.078.733,50 euro, eta igoera da % 1,75 iazko aurrekontuaren aldean.

Aurreko ekitaldiari buruz 2016 aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa aztertu ondoren, koadro hau daukagu:

### 2016-2015 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUZ KAPITULU (MILA EUROTAN)

KAPITULUA	AURREK. 2015	GUZT. Z	AURREK. 2016	GUZT. Z	ALDAE RA. 2016/15	2016/15
I -ZUZENKO ZERGAK	7.842,5	24,88%	7.672,6	23,92%	-169,9	-2,17%
II- ZEHARKAKO ZERGAK	550	1,74%	650	2,02%	100	18,18%
III TASAK ETA PREZIOAK	7.256,4	23,02%	7.120,8	22,20%	-135,6	-1,87%
IV TRANSFER. ARRUNT.	14.057,6	44,59%	15.016,4	46,81%	958,8	6,82%
V ONDARE SARRERAK	238,1	0,76%	178,6	0,56%	-59,6	-24,99%
VI ONDAREA SALTZEA	206,2	0,65%	230,3	0,72%	24,1	11,69%
VII KAPITAL TRANSF.	216,5	0,69%	243,2	0,76%	26,7	12,33%
VIII FINAN.AKT. ALDAK.	90	0,29%	90	0,28%	0	0%
IX FINAN.PASIB. ALDAK.	1.068	3,39%	876,8	2,73%	-191,2	-17,90%
GUZTIRA	31.525,3	100%	32.078,7	100%	553,4	1,76%


Koadro honen bidez jasoko ditugu 2016ko aurrekontuan izandako aldaketa nagusiak:


- Gutxitu da apurren bat udal zergeri (I, II eta III. Kap.) lotutako diru sarrera kapituluaren protagonismoa, eta hori da, beste arrazoi batzuen artean, erabaki delako ez gehitzea zerga presioa, izan ere, ehunekotan, aurrekontuko diru sarrera guztiei buruz, pasatu da % 49,6tik % 48,1era.
- IV. Kapituluaren - Transferentzia Arruntak igoera izan da bai termino kuantitatiboetan (+958,8 mila euro) bai portzentaje terminoetan (% 44,6etik % 46,81 izatera pasatu da), 2015eko diru sarreraren aldean. Igoera horren arrazoi nagusia dator 2016rako Foru Funtzaren diru bilketako perspektiba hoberenetik.



- Kapital operazioen garrantziak (VI. Kap. – Ondareak sartzea eta VII. Kap. – Kapital transferentziak), nahiz eta apur bat igo duen, jarraitzen du izaten testigantzakoa, diru sarrera guztien % 1,48 baita bakarrik.
- IX Kap. – Zorpetzearen garrantzia pasatzen da % 3,4tik % 2,7ra. Edozelan ere, kopuru hori erlatibizatu egi behar da, ez baitu larregiko baliorik, izan ere, azken urteotan aurrekontu kopuruak izan dira erreferentzia hutsak aurrekontua koadratzeko. Beraz, azkenengo lau urte hauetan ez da inolako mailegu berririk kontratatu eta 2016 ekitaldirako, esan dugun moduan, nahiz eta aurrekontuetan sartuta egon, uste dugu ez dela beharrezko izango inolako kopururik.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi dezakegu, batetik, 2016ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa 2015eko aurrekontuaren aldean eta, bestetik diru sarreraren aurrekontuaren kapituluz kapituluko portzentaje banaketa.





Azkenik, adierazi behar da 100 eurotik, Udalak urte osoan sartu behar duena:

- **48,14** datoz udal zergetatik (diru sarreren I, II eta III kapituluak).
- **46,81** datoz beste erakunde edo administrazio batzuen **diru laguntza arruntetatik**; horietatik 42,94 datoz **Udala Finantzatzeko Foru Fondotik**.
- **0,56** lortzen dira **ondare sarreretatik**.
- **0,72** lortzea espero da ondareak saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduengatik diru sarreretatik.
- **0,76** lortzen dira kapital diru laguntzetatik, jaso direnak inbertsioak finantzatzeko.
- **0,28** datoz langileen aurrerakinak itzultzetik eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **2,73** lortuko lirateke “teorian” zorpetzearen bidez, hau da, mailegu berriak, nahiz eta espero dugun mailegurik sinatu behar ez izatea.



Orain diru-sarreraren aurrekontuaren aldaera nagusiak aipatuko ditugu.

## **LEHEN KAPITULUA – ZUZENENKO ZERGAK - 7.672.640 EURO**

Gutxitzen da % 2,17, 2015eko aurrekontuaren aldean.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, kontuan hartu dira 2015eko benetako diru sarrerak, zerga aldaketak 2016rako onartuak Ordenantza Fiskaletan, kapitulu honetako zergak arautzen dituztenak, osoko bilkurak 2015eko urriaren 13an hartutako akordioaren arabera, bai eta diru sarrera berezi batzuen estimazio zuhur bat ere, zerga likidazioen ondorioz, zeintzuk ikuskaritza lanetatik datozen (borrokatzea iruzurraren aurka udal eremuko zergetan, bereziki JEZn).

Horri dagokionez, 2016rako onartutako aldaketa nagusiak hauek dira:

- a) **Ez onartzea zerga tipoak gehitzea 2016rako, kapitulu honetako zerga batean ere, hau da, mantentzea 2015ean indarrean dauden tipoak hiri lur OHZn, landa lur OHZn, Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan, Ibilgailuen gaineko zergan eta Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zergan.**
- b) **Kentzen da %50eko errekgua hiri lur OHZn, 4/2012 Foru Arauan erregulatua, uztailaren 4koa, ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean eta ohiko egoitza ez direnean, azken 3 urteetan aplikatua (2013-2015).**
- c) Sartu dira aldaketa txikiak (**hobariak gehitu dira**) **ibilgailu hibrido eta elektriko**en zergan, ibilgailuen gaineko zergan.

## **BIGARREN KAPITULUA – ZEHARKAKO ZERGAK. 650.001,00 euro**

Gehitzen da % 18 aurrekontuko kopurua 2015ean, nahiz eta gutxitu den nabarmen (▼% 45) urte horretan benetan lortutako diru sarreraren aldean. Gutxitze horren azalpena da: 2015etik aurrera gertatu bada ere apur bat aktibatu dela egin beharreko obren bolumena, ez dela ahaztu behar benetako diru sarreretan proiektu atipiko batzuk izan direla, tamaina dezentekoak, aurreikusten ez direnak berriro errepikatzea 2016an.

Kapitulu honetako diru sarrerako kontzeptu bakarra da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, eta honek ez du izan aldaketa esanguratsurik 2016rako, zerga tipoa legez baimendutako gehienez dago eta (%5 obra, eraikuntza edo instalazioaren balioaren gainean). Argi geratu behar da aurrekontuko kopurua lortuko dela baldin eta betetzen badira udal kontrolatik guztiz kanpo dauden faktore batzuk, hau da, pentsatutako diru sarrerak lortzeko, zergadunek obra proiektuak egin behar dituzte, udal lizentziarekin batera, 12,5 milioi euro gordin guztira. Baldin eta ekitaldian desbideraketa esanguratsuak izaten badira aurreikuspenaren eta benetan egiten denaren artean, doitu egin beharko liriteke aurrekontuaren oreka bermatzeko.

Bestalde, bereizten jarraitzen dugu diru sarreraren kontu saila -EIOZ Garaia-tik datorrena eta EIOZ orokorra, gainerako eremuetan, baina Garaia guneari dagokionez, aukeratu dugu 1 €



jartzea aurrekontuetan, handitu egin ahal izango dena. Horrela, diru sarrerarik lortuz gero, horien kontura handitu ahal izango dira Garaia S.Coop.ri ordaindu beharreko kopuruak, 2010eko urriaren 7an osoko bilkuran hartutako akordioaren arabera, Udalak onartu baitzuen Garaia S.Coop. entitatearen kapitala handitzea, baina kopuruak emango dira badlin eta diru sarrerak benetan sortzen badira zerga horretan.

Azkenik, 2016ko aurrekontuan, kapitulu horretan bertan, partida bat sartu da ekitaldian egin behar diren ikuskatze lanen ondorioz lortzen diren diru sarrerak biltzeko, 25.000 euroan kuantifikatuak, komenigarritzat jotzen baita hura bereizita kontabilizatzea.

### **HIRUGARREN KAPITULUA – TASAK ETA PREZIOAK - 7.120.825 euro**

Gutxitu da % 1,87, 2015eko aurrekontuaren aldean.

Udaleko osoko bilkurak onartu zuen 2015eko urriaren 13an 2015ean indarrean dauden tarifak mantentzea, eta aldaketa aipagarri bakarra da tarifak berregituratzea kirol instalazioa erabiltzeagatik (eskualdeko karneta kendu da eta tarifa berri bat sortu, abonatu ez errolatuentzat). Gainerako tasak ez dute aldaketarik/igoerarik izan.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, oinarri hartu dugu ekitaldiaren itxierako estimazioei buruzko informazioa.

Azkenik, adierazi behar da kapitulu honetako lau diru sarrera kontzeptu nagusiak direla ur eta zabor tasak, zerbitzuak hornitzen dituzten enpresek jabetza publikoa okupatzearen tasa eta kirol sailaren diru sarrerak; horiek guztiak kapitulu honetako zenbatekoaren %80,35 dira, hain zuzen ere, 5,72 milioi euro.

### **LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 15.016.357 euro.**

Balio absolutuetan handitu da 0,96 milioi euro, 2015eko aurrekontuaren aldean, eta % 6,8 portzentaje terminoetan.

Gehikuntza hori azaltzeko, hona hemen arrazoi nagusiak:

- Lehena dator, dagoeneko aipatua memoria honetako hainbat ataletan, 2016rako Foru Funtzaren diru sarreraren estimaziotik; Arrasaterentzat 13.775.077 euroko kopurua da, 2015eko aurrekontuan jarritako kopurua baino 0,88 milioi euro inguru gehiago (% 6,8). Alderatzen badugu 2015eko aurre likidazioari edo itxiera estimazioari buruz, gehitze txikixegoa izango genuke (+0,46 milioi euro, ▲% 3,5), izan ere, espero dugu 2015ean benetako kopurua geratzea hasieran aurrekontuan jasotako kopuruaren gainetik. Kalkulu hori, era berean, oinarrituta dago Foru Aldundiak horri buruz egindako aurreikuspenetan, zehazki % 4,09 igoera batean hitzartutako zergengatik diru bilketan, 2015eko aurrekontuko kopuru estimatuaren aldean. Aurrekontuko gehikuntza hori egotzi dakiok, funtsean, Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera, faktore hauen konbinazioari:



- a.- Ekonomia hazi egingo delako aurreikuspena, termino errealetan, % 2,5 hazi ere.
- b.- Kontsumoan hobetzeko estimazioa, agertuko dena diru bilketaren gehikuntza batean, zeharkako zergengatik (BEZa).
- c.- Gipuzkoak Eusko Jaurlaritzari eman beharrekoaren koefiziente horizontala aldatzea, eta pasatuko da % 33,03tik 2015ean % 32,98 izatera 2016an.

Azken batean, ematen du 2016ko foru bilketaren aurreikuspena eta, deribazioz, Foru Funtzaren kopuruak oinarritzen direla Gipuzkoan ekonomia hazi egingo delako aurreikuspen batean.

- Diru sarreraren kapitulu honetan 2016ko gehikuntza erakusten duen bigarren motiboa dator Eusko Jaurlaritzaren ekarpen estimaziotik Gizarte Larrialdietako Laguntzak finantzatzeko, zeina pasatzen den 175 mila eurotik 215 mila eurora. Igoera hori, izatez, gertatu da dagoeneko 2015ean, 2016rako aurreikuspenak erantzuten baitio aurten benetan lortutako diru sarreraren kopuruari.

Kapituluaren gainontzeko kontu sailetan, aurrekontuan jaso ditugu diru laguntza duten programei dagozkien zenbatekoak, azken ekitaldian finkatu diren programenak (Lanbide – enplegu sustapeneko kontratuak, 120 mila euro, Foru Aldundia – Etxeko Laguntza, 200 mila euro, HABE – udal euskaltegia 385 mila euro, kultura jarduerak, liburutegiak, Mankomunitatea-Udalako IE, Eusko Jaurlaritza-EBPN, Foru Aldundia-gazteria, kirola eta emakumea, eta abar).

## **BOSGARREN KAPITULUA – ONDARE DIRU SARRERAK – 178.600 euro**

Gutxitu da % 25, 2015eko aurrekontuaren aldean. Kapitulu honek ez du garrantzi espezifiko larregirik udaleko diru-sarreretan. Aldaketak, 2015ekoaren aldean, oinarria du, batez ere, ekitaldi horretan aurreikusitako diru sarrerak kendu direla merkatuko administrazio emakida berriengatik, izan ere, proiektua berraztertu da eta egin beharrekoak nabarmen aldatuko dira. Kasu guztietan, adierazi behar da 2015ean proiektua pentsatuta bezala egin izan balitz ere, diru sarrera horiek, merkatuko administrazio emakidengatik, 2016an berdin-berdin esagertuta egongo zirela.

Gainerako diru sarrerei dagokienez, kontzeptu nagusia dator ondasun higiezinaren errenta edo alokairuetatik, lursail edo instalazioetatik, 150 mila euro, eta beste kontzeptu azpimarragarri bat, finantza diru sarrerak, 15 mila euro, horien kopuruak mantenduta 2015ekoaren aldean, azken kontzeptu hori pentsatuta diruzaintza gerakinak egongo direla 2016an, finantza aktiboen ordainketa baxuko egoera batean.

## **SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK INORENTZEA - 230.300 euro**

Handitzen da % 11,7, +24 mila euro, 2015eko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean, nahiz eta 2015eko benetako diru sarreraren aldean jaitsi egin den %30 (azalpena da hainbat





operazio berri egin zirela, hirigintza kargak, ohikoak ez direnak, eta horiek nekez errepikatuko direla 2016an).

Kapitulu honetan, erabilitako etxeko olio biltzeko patentearen aprobetxamendua eta ustiapena lagatzeko hitzarmenetik datozen diru sarrerak izan ezik, OLIO3R, SL enpresarekin sinatutakoa 2014/5/13an, 2014/3/19ko osoko bilkuraren akordioa hartu eta gero (indarrean zegoen aurrekoaren ordezkari Fagor S.Coop. eta EKO3R enprekin sinatua, patentea ustiatzeko ardura zuen sozietatea SL bihurtu baitzen, enpresa berrian bazkide berriak sartu baitziren), gainerako kontzeptuak, gaurko egunez, diru sarrerako esperantza generiko hutsak dira, ez baitago batere operaziorik arrazoizko garapen maila batekin estaliko dituen diru sarrerako aurrekontu aurreikuspenak.

Edozelan ere, historikoki diru sarrerak lortu direnez kontzeptu horien truke eta uste denez arrazoizkoa dela espero izatea operazioen bat gauzatzea, kopuru "zuhur" bat jarri dugu aurrekontuan gainerako kontzeptuetan, inorentzea keta hirigintza kargak eta aprobetxamendua, 220.000 euro, zeinak izan beharko duen jarraipen eta kontrol zorrotza, nahi ez dugun desdoitzerik ez izateko 2016ko kontuetan. Bestalde aipatu behar da, nahiz eta ez izan horretarako egoerarik egokiena, Udalaren borondatea da ondare inorentzeak egiten jarraitzea, interes publikorako ez estrategikoak jotako aktiboena (Zerrajeran eta Uarkapen dauden lokalak).

## **ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 243.200 euro**

Handitu da % 12,33, +26,7 milioi euro, 2015eko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Kapitulu hau, nahi ez badugu inbertsio jarduera handitzea bakarrik zorpetzean oinarrituta egotea (bazertertuta epe laburrera zerga presioa erabiltzea), klabea izango da helburu hori lortzeko. Horri buruz, 2016an dagozkion gestioak egin beharko dira beste administrazio batzuekin kofinantzaketan konpromisoak lortzeko (nagusiki Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin). Nolanahi ere, 2016ko aurrekontuari begira, aukeratu dugu sartzeko diru sarreren aurreikuspenak, programa finkatuetatik datozenak (liburutegietako ekipamenduak, energia efizientzia, irisgarritasuna eta lurzoru kutsatuak). Berritasun edo aldaketa esaguratsu gisa 2015eko urtearen aldean, adierazi behar da uste dugula (izatea hori dauka, balioespen hutsa, egin beharreko kudeaketa) bidegorriaren proiektuak, haren gastu aurrekontua 547 mila eurokoa, diru laguntza esanguratsua beharko lukeela, eta horregatik jarri da kopuru "zuhur" bat, 100 mila euro, proiektu hori kofinantzatzeko.

Atal honetan egokia da errepikatzea aurreko ekitaldietan egindako hausnatketa, Udalaren inbertsio jarduera (bai proiektuetan bai epe eta zenbatekoetan) onartzen joan daitezkeen diru laguntza programei egokitzeko beharrari buruzkoa, Udalak uste baitu oraingo egoera ekonomikoan laguntzak lortzea dela erabakigarria, tamaina bateko inbertsioen exekuzioa bideragarri egin nahi badugu finantza ikuspegitik.

Horri dagokionez, arin samar, hartarako idatzi litezkeen laguntza programak kokatze aldera eta horien kostuan Udalari egokitzen zaion portzentajea finantzatu ahal izateko, aurrekontuak betetzeko arauetan jaso dugu, behar izanez gero, milioi bat euroan gehitzeko



aukera 2016ko ekitaldian sinatu beharreko maileguen zenbateko osoa, betiere diru laguntza bidez lortutako finantza portzentajeak inbertsioaren guztizko bolumenaren berdinak badira edo %40 baino handiagoak badira.

## **ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 90.000 euro.**

Kopuru berdina 2015eko kopuruarekin alderatuta. Oso eragin txikia du aurrekontuan, izan ere, kapitulu honek jasotzen ditu Udalak langileei emandako aurrerakinak itzultzetik datozen diru sarrerak, kontzeptu horretarako onartu zen gastuaren kopuru bera.

## **BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 876.810,50 EURO.**

Kapitulu honek jasotzen du datorren urtean hitzartu beharreko mailegu berrien aurreikuspena.

2016ko aurrekontuak “teorian” koadratzeko behar den kopurua da, hau da, behar den diru-sarrera osagarria gastu guztiak finantzatzeko. Memoria honetako hainbat ataletan esan dugu legezko mugetatik abiatuta, zorpetze berrietarako eta kontuan hartua, 2015eko ekitaldiaren itxieraren testuinguruan, espero dela soberakin handia izatea (behar diren erreserbekin behin-behinekoa delako, estimatua 3-3,5 milioi euro inguruan), gobernu taldea ahaleginduko da, ahal den neurrian, 2016an mailegu berririk ez egiten. Helburua da, legealdiko inbertsioen plangintza tekniko eta finantza plan egokia egindakoa, 2017 eta 2018 urteak izatea beregain hartu dezaketenak zorpetzearen handitzea.

Hortaz, soberakin horiek egiaztatuz gero 2015eko ekitaldiko itxieran eta kontuan izanda une horretan aztertu eta eztabaidatu daitekeela hura erabiltzea, soberakin horretako hartzailleetako bat, ziurrenik, izan daiteke desbideraketa negatiboaren konpentsazioa kapitulu honetako aurreikuspenetan (hau da, aurrekontuan jasotako diru sarrera, egin behar ez diren maileguena). Hitzaurre honekin, adierazi nahi dugu kapitulu honetan egindako aurreikuspena dela guztiz teorikoa eta, praktikan, espero dugula, azkenik, behar ez izatea.

Bestalde, adierazi dugu ere memoria honetako hainbat ataletan (eta aurrekontua betetzeko arauetan erregulaturik) formalizatu beharreko maileguen kopurua 2016an handitu daitekeela beste milioi bat euroan, aurrekontua egonkortzeari eta finantza iraunkortasunari buruz ezarritako legezko betebeharrak bete behar direla kontuan izanik, finantzatzeko beharrak izanez gero horiek erantzuteko, beste administrazio batzuekin elkarrekin finantzatzeko inbertsio proiektuetatik datozen beharrak, hain zuzen ere. Aurreikuspen hori egin dugu uste dugulako, nahiz eta une honetan ez jakin ziur aukerarik egongo den zentzu horretan, baietz izanez gero, ez litzatekeela logikoa izango uko egitea hura exekutazeari, udal finantzaketarik ez dagoelako, are gehiago proiektu horiek laguntza portzentajeak eduki ditzaketenean, oso interesgarriak exekuzioa bideragarri egiteko. Aurrekontuaren agirian listoia ezarri dugu %40 ko finantzaketa portzentajearen mailegu gehigarriaren bidea erabiltzeko, hori guztia kontuan izanik muga hori geroago berriro planteatu daitekeela, osoko bilkurak hala iritiz gero.



Edonola ere, ahalegin berezia egingo dugu 2016an aurrekontua egonkortzeko dauden legezko baldintzak betetzeko, zorpetze garbia gehitu barik, ekonomia-finantza plan bat onartu beharrik ez izateko, praktikan, oraingo lege-esparrua aldatu ezean, 2017an eta hurrengo urteetan ezingo genuke mailegu berririk lortu (amortizatutako kopuruen gainetik, behintzat).

Azkenik, eta memoria honetan zehar aipatutakoaren osagarri gisa, aztertuko ditugu Udalaren zorpetze indizean eragiten duten aldagaiak, bai eta 1991-2016 aldian indize horren eboluzioa ere.

### ALDAGAIEN KOADROA, ERAGINA DUTENAK ZORPETZE INDIZEAN 1991 – 2016 ALDIA

URTEA	ZOR BIZIA MAILEGUAK	INTERES TIPOA, 12/31n	OPER. ARRUNT. LIKID. ESKUB.	ZORPETZE INDIZEA
1991	5.569	13%	10862,7	9,9%
1992	7.286,7	15%	12.550,9	11,5%
1993	9.685,3	8,75%	12.337	11,5%
1994	11.741,4	8,65%	13.078	14%
1995	13.052,2	9,25%	13.477,7	15,6%
1996	12.001,6	6,35%	14.946	11,2%
1997	11.025,6	4,86%	15.971,9	9,6%
1998	9.992,4	3,36%	16.194,9	9,5%
1999	8.852,3	3,39%	17.340,4	8,6%
2000	7.728,4	5%	19.833,4	7%
2001	8.375,1	3,5%	18.784,2	7,8%
2002	8.935,3	2,9%	19.167,7	9,8%
2003	7.506,1	2,12%	21.070,8	8,6%
2004	5.823,6	2,16%	24.461,2	7,6%
2005	10.004,7	2,49 %	24.549,4	9,3 %
2006	9.874,7	3,73%	27.650,8	5,9 % (4)
2007	8.647,5	4,68%	28.870,84	5%
2008	7.587,2	3,45%	28.469,48	4,7%
2009	9.582,8 <sup>(3)</sup>	1,2%	26.072,0	8,5% (3)
2010	8.179,3 <sup>(3)</sup>	1,52%	27.608,6	8% <sup>(3)</sup>
2011	9.144,5 <sup>(3)</sup>	2%	25.631,8	10,1% <sup>(3)</sup>
2012	6.706,3 <sup>(3)</sup>	0,75%	26.665,2	9% <sup>(3)</sup>
2013	4.393,7	0,75%	27.335,6	4,1% (4)
2014	3.328,7	0,40%	29.347,6	3,4%
2015 <sup>(1)</sup>	2.362,6	0,40%	31.200	3%
2016 <sup>(2)</sup>	1.647,8	0,25%	30.638,4	1,1% <sup>(4)</sup>

(1) Itxiera estimazioaren arabera.

(2) (aurrek. datuen arabera) Ez da beharrezko jotzen 2016rako aurreikusitako mailegua

(3) Zorren eta zorpetzearen eraginetarako, 2009ko UFFFgatik Foru Aldundiarekin dugun saldo negatiboa sartuz, intzidentzia handia baitu finantza kargetan, hiru urtean ordaindu behar baitugu, 2011-2013. Zor moduan zenbatu ezean, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko zorpetze indizea izango litzateke, urtealdi bukaeran, %4,5, %4,2, %6 eta %5, hurrenez hurren.

(4) Beheraka "ezohikoa" gertatu da, finantza kargak jaitsi direlako, 2005etik 2 mailegu guztiz amortizatzean. Antzeko egoera, 2009ko foru funtsaren saldo negatiboa itzultzea amaitu izanagatik eta 2 mailegu amortizatu/bertan behera utzi izanagatik.

(5) Aurrekontuan erabilitako interes tipoa, hurrengo urteko finantza kargak kalkulatzeko



Koadro honetan ikusi daiteke zelan erlazionatzen diren euren artean zorpetze indizea zehazten duten aldagaiak. Horrela, adibidez, 1993 urtean gertaturikoa, 2,4 milioi euroan igo zen zor bizia eta, nahiz eta diru sarrera gutxiago izan operazio korronteak direla-eta, horrek ez zuen ekarri zorpetze indizea igotzea, interes tipoa ikaragarri jaitsi zen eta.

Edozelan ere, interes tipoa egonkortu denez apur bat, 1996/2016, ikusten dugu zorpetze indizea dabilela ekitaldi bakoitzeko zor biziaren arabera, amortizazio erritmoaren arabera eta diru sarrera arrunten eboluzioaren arabera. Atal hauen eraginaren lagin garbia da behartuta gaudela hiru urtean Foru Aldundiari 2009ko UFFFen saldo negatiboa itzultzen, 3,3 milioi euro, ia bikoiztu egiten duena 2009ko ekitaldirako azken zorpetze indizea. Indize hori nabarmen jaisten da 2013tik aurrera, 2 mailegu guztiz amortizatu eta gero (Kutxa eta BBVA) eta behin betiko Foru Aldundiarekin genuen zorra kitatu eta gero.

Mailegu berriak eskatu ez dugunez 2011tik aurrera, interes tipoa egonkor jarraitzen duenez, zorraren zenbatekoa jaitsi denez eta diru-sarrera arruntak hazi egin direnez apurka-apurka eta etenik gabe, elementu horien guztien ondorioa da serie osoko zorpetze indize baxuenak legealdiko azken urteetan gertatu direla, zehazki 2013-2016 aldikoak.

Honekin batera doan grafikoa ikusi daiteke zein den zor biziaren eboluzioa, maileguetan eta baliabide arrunten likidatutako eskubideetan, eta zein den zorpetzearen eboluzioa 0tik %25era (baimendutako gehienezko muga gisara definiturik).

